

Enaren Kontuak

Martxoaren hasieran enarak iritsiko dira gure etxera, eta bertan geldituko dira irailaren hondarrera arte.

2princesesbarbudes-ok haien bizimodua eta bidaiak dakarzkizuegu "Enaren kontuak" diskan. Geure uztako hamaika kanta, enaren istorioz josiak: nola egiten duten habia, zer jaten duten, kumeak nola hazten dituzten, zer janzen duten, nora bidaiatzen, zerekin egiten amets.

Dokumental ornitologiko moduko honetan, Afrikako migrazioetik iritsi berri diren lau enara bizardun topatuko dituzue oholtzan, jostailuzko musika-tresnekin eta pop erritmoekin kontzertu bat emateko prest.

Fitxa artistikoa

Interpreteak: **Helena Casas:** Jostailuzko bateria, panderoa, pianotxoa, esku-soinu txikia eta ahotsa. **Marc Marcé:** Hiru kordako gitarra elektrikoa, jostailuzko ukelelea eta ahotsa. **Marc Poch:** Jostailuzko bateria, melodikoa, pianotxoa eta xilofonoa. **Toni Vilapinyó:** Baxu txikia.

Sorkuntza, produkzioa eta moldaketa musikalak: 2princesesbarbudes

Euskarara egokitua: Uxue Alberdi

Off-eko ahotsa: Aduna Olaizola

Jantzigintza: DressArt

Ikuskizuneko teknikaria: Koldo Sagastume

Fitxa teknikoa

Kontzertua barruan edo aire zabalean egiteko modukoa da. Gutxienez 6 metro zabal eta 4 metro sakoneko eskenatokia behar da.

Soinu-ekipoa

Esparrura egokitutako estereo bozgorailu-sistema // Oholtzako lau monitore // 12 kanaleko mahai digitala Soinu-riderra deskargatu dezakezue [hemen](#) // Soinu-teknikaria geuk dakargu

Argi-ekipoa

Aurrealdeko barra: Giro orokorra LEE 205ekin // **Barra zenitala:** 4 erreorte ETC 25/50 //

Atzealdeko barra: Giro orokor hotza LEE 201ekin eta giro orokor beroa LEE 154rekin // **Lurra:** 4 PAR LED

Ez dakargu argi-teknikaririk // Taldea iristerako diseinuak prest behar luke.

Muntaia

Muntaiarako 2,5 ordu behar dira kontzertuaren egunean bertan, eta desmuntaiarako ordu bete.

Besterik

5 pertsonarentzako kamerino handia

Ur botila txikiak.

2princesesbarbudes

Printzesak abestu eta bizardunak mikrofonoak jartzen dituela esan genezake. Baina era berean esan genezake emakume bizardunak marraztu eta printzeak akordeak interpretatzen dituela. Horra hor bizardun printzesa eta printzesa bizarduna.

Gitarra arrosen, igel-maraken eta plastikozko tronpeten artean aurkituko dituzue Marc Marcé eta Helena Casas musika baxua egiten jende baxuarentzat. 2princesesbarbudes ikuskizunean abesti ezagunak eskainiko dira % 100ean jostailu diren tresnekin.

Historia

Helena Casasek (*Pomada* eta *Conxita* taldeetako abeslaria eta ilustratzailea) eta Marc Marcék (musikaria eta soinu-teknikaria) elkarrekin lan egiten dutenean 2princesesbarbudes dira. Familiako guztientzat pop musika egiten duen Kataluniako taldea. 2008an “Musiquetes por la Bressola” diskan parte hartu zuten “La Pastoreta” kantarekin.

2011ko udazkenean “Cançons i rimetes” diska aurkeztu zuten, Kataluniako abesti tradizionalen berrikuste popero eta minimalista. Ikuskizuna 2012ko La Mostra d’Igualadan estreinatu zen.

2013ko udazkenean “Enciclopèdia Baixeta de la Nit” diska aurkeztu zuten, beren uztako 13 konposizioz osaturiko gauari buruzko diska-liburua. Ikuskizuna 2014ko Fira Mediterrània de Manresan estreinatu zen. Diska eta ikuskizuna “Gauoko entziklopedia koxkorra” izenarekin euskarara egokitu eta 2014ko Durangoko Azokan estreinatu zen.

2015eko neguan “Sempre de vacances” aurkeztu zuren, diska-liburu formatuan hau ere, enarei buruzko 11 kanta berriekin. Ikuskizuna 2016ko Mercat de Música Viva de Vic-en aurkeztu zen. 2017an gaztelerara egokituriko “Siempre vacaciones” eta frantsesera moldaturiko “Toujours en vacances” aurkeztu eta estreinatu zituzten. Une honetan diskaren euskarazko egokitzapena aurkezten ari dira.

Loturak

Argazkiak: http://2princesesbarbudes.org/material/2pb_SdV_fotos_alta.zip

Bideoklipa: <https://youtu.be/2Koly8ENUT0>

Diska: <https://2princesesbarbudes.bandcamp.com>

Laburpen bideoa: https://youtu.be/1-foUes0B_Q (katalanez)

Web orria: <http://www.2princesesbarbudes.org/euskaraz.html>

Facebook: <http://www.facebook.com/2princesesbarbudes>

Youtube: <http://www.youtube.com/2princesesbarbudes>

Harremanetarako

correu@2princesesbarbudes.org

650 17 80 04 - Marc